

## LARROSA ETA KLABELIÑA.



(ROSARIO ARTOLA-RI)

Baratz batian nintzan  
 Sartu goiz batian,  
 Larros aundi bat nuben  
 Ikusi aurrian:  
 Eta aren onduan  
 Klabeliñ gorriya,  
 Zeñak baziruriyen  
 Pišpolin chikiya;  
 Larrosak gallendurik  
 Begiratzen ziyon,  
 Burla besterik goitik  
 Egiten etziyon;  
 Esanaz—¿aiñ kaskarra  
 Zertan ago orla,  
 Uste alde onduan.  
 Nik i nai autala?—  
 Klabelinchua umill  
 Zeguen artian,  
 Bañan eraso ziyon  
 Arrabi guztian;  
 —¿Zer ari aiz esaten  
 Larros ganbeluba,  
 Iretzat ez alde or  
 Naikoa lekuba,  
 Panparroikeri oyek

Laster joango zaizkik,  
 Ire atzen orduba  
 Ikusikoyat nik;  
 ¿Ez aldakik chikiya  
 Ni izanagatik,  
 Fin ta zimel arkitzen  
 Naizela oraindik?  
 —Iñilik ago chañar  
 Berritsu petrala,  
 ¿Uste aldeak nik aña  
 Iraungo dekala?  
 —Laster esango diat  
 Zein geran geyago,  
 Burla egiten lanik  
 Ezdek ik izango;  
 Aize kolpiak azkar  
 Au purrukatuko,  
 Eta arrokeriyak  
 Zaizkik bukatuko.—  
 Esan zuben bezela  
 Aizien indarrak,  
 Lurreratu zituben  
 Bere orri danak.

. . . . .

Gizon aundiyak ere  
 Beñere burlikan,  
 Ez dezazute egiñ  
 Chikiyakgatikan;  
 Larrosak jartzen digu  
 Argiya aurretikan,  
 Nai badezutu artu  
 Ejenplo onikan,  
 Ez inoiz segitzeko  
 Aren biderikan.

FELIPE KASAL OTEGI.

